

Kostu egitura

Hasi baino lehen argitu behar da gure proiektuak ez duela produktu bat sortzen, entretenimendu zerbitzu bat eskaintzen du eta gure kostuak desberdinak eta balora ezinak dira gehienetan, gure babesleen behar handia dugulako.

Kostu finkoetan torneoaren alokairua sartzen dugu, baina gerta liteke gure babesleetako batek toki bat utzi izana eta ez ordaindu behar izana edota udaletxeak edo beste erakunde batek duen toki publiko bat erabiltzea ekintza hau aurrera eramateko.

Aurrekoaz gain kostu finkoetan aurki ditzazkegu torneoaren eta gero behar izango dugun lokala jokalariek entrena dezaten eta gutxienez egoitza bat izatea bertan taldearekin interesatuak daudenak gurekin kontaktuan jartzeko.

Web gune bat sortu nahi izanak ere kostu bat ekarriko luke, sortzea eta berritzen joateak azken finean bere denbora eta jendea behar bait du. Orduan Web orriaren helbideagatik kostu aldakor bat izango litzateke hilabetero ordainduko dena, web orria kudeatzen duenari bezala.

Lehen aipatu bezala torneoaren sari printzipala gure taldearen parte izatea da, baina hori baino lehen jendeak inskripzioak egin ahal izateko bulegoetako materiala behar genuela esan dugu, bertan kostu aldakor bat dugu (zenbat material beharko litzateke?), ez bada gertatzen alokairuan bezala, babesleren batek emango ligukeela.

Horretaz gain, nahiz eta gure gastua ez izan jarraiki, torneoko partaide guztiei sari bat eman beharko litzaieke, jana, edota jokoaren inguruan informazioa. Honetaz gure babesleak izango lirateke arduradun, horregatik diogu ez dela gure zuzeneko gastu bat.

Torneoaren ondorengora begira, torneo ezberdinetan parte hartzeak dituen kostuak kontatu beharko dira eta jokalariei ordaindu beharko zaien soldata ere. Nola ez azken hau igotzen edo jaisten joango da bere jarraitzaileen eta irabazi dituzten torneoaren arabera. Gainera antolakuntzako langileei eta beste guztiei ere soldata eman beharko litzaieke.

Nola ez hasiera baten galera gehiago izango dira irabaziak baino, baina gure babesleen eta jokolariengatik hobetuz joango gara eta irabaziek gora egingo dute. Oso inportantea da publizitatea eta jarraitzaile asko izatea, hala gero eta kostu gutxiago izango ditugu, babesleek gehiago lagunduko digutelako.